

TESTU ETA ARGAZKIAK

Nikol Arizabalaga
(Donostia-Biarritz, 1971)

Egunkaria, Berria eta Gara egunkarietan, Pyreneak, Euskal Herria eta Norteko aldiakarietan eta Euskadi Irratian mendi arrokin zer ikuska duen makila bat artikulu eta lelo horri o egoinditu. Euskal Herriko mendietan ez ezik, Pirinioak, Alpeak, Adas eta Himalaiako mendietan ibili da.



MENDITXIKI - NAFARROA IRULEGIKO “SORIONEKU”AK

Aranguren ibarra osatzen duten bederatzki herrietako lurrak bisitatuz gero, bertako ondare historikoa ez agutzeko aukera izango dugu. Ibilaldi honetan, ondare hori osatzen duten bi leku garrantzitsu lotuko ditugu, Irulegiko Burdin Aroko herrixka eta Erdi Aroko gaztelua hain zuzen ere. Gure arbasoek utzitako aztarnen ondora heldu aurretik, mendiaren magalean hedatzen den baso bizidunak (maitagarrien basoa ere del tua) hamalka irudi koloretsu eta eder erakutsiko dizkigu.

Tundain herritik abiatu eta berehala iritsiko gara baso biziduna hasten den pistaren sarrerara. Sorgin bat tailatuta duen enbor baten ondoan dagoen langa gainditu eta aurrera egingo dugu. Tarte txiki bat bete eta gero, bide zabala utzi eta pinu artean marratzten den xendan egurrezko hamalika irudien ondotik igaroko gara (baraskiloa, igela, hartzka, hontza, onddoa, txinatarra, sagua...). Irudi guztiek tundain Funda-

zioko langile eta gazteek eginak dira. Pista ateratzean, ingurune hesitua duen tximeleten erreginaren mikro-erreserba gerituratuko gara. Isabel-tximeleta (*Graeffea isabelae*), gaueko tximeleta handi bat da, halez ere berde kolorekoa. Tundaingo mikro-erreserba hau espezie honetako munduko lehena da.

Langa gainditu eta berriro pista zabala hartuko dugu leporaino igotzeko. Puntu

honetan, bide zabala utzi eta GR-22Qaren seinalde zurigoniek (Irufemiako arroaren itzulia) erakusten diguten norabidean, pinudian murgildu eta bertatik zabaltzen den xendan barrena abiatuko gara. Lehen malda igo orduko, malda handia eta piko gainditzekeko 150 maila dituen eskailera batekin egingo dugu topo. Goiko aldera iristean, ikuspegia zabaldu egingo zaigu, ezpel eta pinu txiki batzuk izan ezik, ez



Irulegiko gaztelua

dugu trabarik izango. Gure mendean, Itza-gaondoako ibarreko zereal lurrek osatzen dute n puzzle koloretsua, sasoi bakoitzaren arabera kolore desberdinez jantzia.

Bidezidorra pinudi toki bateraino era-mango gaitu eta hau zeharkatzean, aurrez aurre ikusiko dugun ordoki berdearen goiko aldean Irulegiko gazteluaren aurriak agertuko zaizkigu. Tontorrerantz abiatu aurretik, magalean kokatuta dagoen Burdin Aroko herrixkaren aztamategira genturatu gara. Aranzadi Zientzia Elkartek, 2007 eta 2017 artean gaztelua ikertu eta gero, 2018an honen magalean dagoen herrixka aztertzan hasi zen. Indusketa horien ondorioz, Kristo aurreko 1 mendekoaren esku ibura duen brontzezko xalha bat aurkitu zuten. "Irulegiko eskua" izenez ezagutzen den pieza berezi honetan lau lehengo idatzia agertzen dira, eta horietako lehenengoa, "sorioneku" modura transkribatu dute, karaktere paleohispaniarretan eta hizkuntza baskoian idatzia. Aditu en arabera, ohiz kanpoko aurikuntza honek antzinako baskoia alfabetaturik zeudela erakusten du, eta ez zirela idazten hasi alfabeto latinoan. Baskoieraz idatzitako lekukotasun zaharra dugu hau. Zin eza-

antzinako euskarari buruzko aurikuntza garmantzitsua.

Herrixka atzean utzi eta gaztelu aldera igotzeko azken maldari aurre egingo diugu. Irufierrian ondoen mantentzen den Nafarroako Erresumako Erdi Aroko gaztelua da. Eta hori, Aranguren ibarreko hemitar, Lamazkao elkartea, Nafarroako gobernu eta Aranzadi Zientzia Elkartea, egindako ikerketa arkeologiko eta berreraikitze lanetan parte hartu izanari zor zaio. Irufieko erresumaren hastapenetan eraikitzailea uste da, garai hartako baskoien defentsa-sistema gotorlekuetan oinarritzen baitzen. Agaramontarren eta Beaumontarren arteko gerra zibilean, Leringo kondea izan zen gazteluaren jabea, eta XIV. mendearren bukaeran, Juan Mearin Beaumontarraren hango alkaidea. 1494an, Joanes II.a eta Katalina I.a Nafarroako errege-erreginek gaztelua berreskuratu zuten, baina urte berean gaztelua eraistea erabaki zuten. Gaur egun ikusten diren egiturak XIII eta XV. mendetako eraikuntza faseei dagozkienak dira. Gazteluan dago tontorra adierazten duen buzoi edo gutunontzia eta harresietara igotzea besterik ez dugu panoramika zabel eta ederraz gozatzeko.

Aranzadi Zientzia Elkartek dionaren arabera, "Irulegi fase kronologiko zabalak hameratzen dituen aztarnategia da, eta arrazoi horf dela eta, erreferentziala izan-



go da Iruleko arroko bilakaera historikoa ezagutzeko". Datozen urteetan egingo diren balizko aurikuntzek berriro Irulegi bisitatzen ekarriko gaituela desiratuz, etorritako bidetik atzera egingo dugu pistaraino. Bertara heldu baino metro batzuk lehenago, eskuetik ateratzen den xenda hartuko dugu ibilaldi honen hasieran ezagutu dugun baso bizidunaren bigarren zatia ezagutzeko. Basoa zeharkatzen duen bide honen beste makina bat irudi erakutsiko ditzigu, egurrean edota enborretan tailatutako txakurra, behia, zaldia, koko-diloa, eskuia, libunua, hontza, onddoak eta aber. Bide magiko honen azken partean, maitaganrien haritz-enborraren ondora iritsiko gara eta metro batzuk aurrerago eginez, maldan behera zuzentzen den bidezidorreko abiapuntura itzuliko gara.

LIZERA: 5,7 km | **DESNIBELA:** 336 m

Irulegiko gaztelurada oan bidean

